



**LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIAREN AUTO
ARGIGARRIA, ZEHAPENA MURRIZTEKO HELBURUZ
HITZARMENDUTAKO PROZEDURARI, BERE 2008KO
UZTAILAREN 23KO EBAZPENEAN (Esp. R 02/2008, HIRU)
AURREIKUSITAKOARI, HAIN ZUZEN, DAGOKIONA.**

Osoko Bilkura

Javier Berasategi Torices jauna (lehendakaria)

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna (lehendakariordea)

Juan Luis Crucelegui Gárate (kidea)

José Antonio Sangroniz Otaegi (idazkaria)

Gasteizen, 2008ko irailaren 30a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (aurrerantzean LDEA) Osoko Bilkurak, lehenago adierazitako kidez osaturik eta txostengilea Joseba Andoni Bikandi jauna delarik, auto argigarria eman du R 02/2008 Espedientean 2008ko uztailaren 23ko Ebazpenari dagokionez. Aipaturiko Ebazpenak, hain zuzen, ebatzi zuen HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLAREN SINDIKATUAK (aurrerantzean HIRU) Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren (aurrerantzean Zerbitzua edo LDEZ) 2008ko martxoaren 5eko probidentziaren aurka ipinitako errekurtoa. Probidentziak ezetsi zuen LDEZren 3/2008 zenbakidun espedientean (espediente hori ireki da ustez Lehia Defendatzekoa den uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. artikuluaen aurkako jardunak egin direlako) HIRUren izenean eta ordeztuz Elixabete Salvatierra andreak eskatutakoa, alegia, itundutako amaiera hitzartzekoa.



AUTOA

2008ko irailaren 9an Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren gutun bat jaso da, Guillermo Aranzabe Pablos instruktore jaunak sinatutakoa, alegia, non eskatzen zen zehapena murrizteko helburuz hitzarturiko prozeduraren zenbait alderdi argitu daitezela. Prozedura hori, hain zuzen, itundutako amaieraren antzera, LDEAk garatu du (R 02/2008, HIRU) 2008ko uztailaren 23an hartutako Ebazpenean.

Honi buruz gogoratu behar da LDEAk hartutako Ebazpenak, lehenago aipatuak, lehenbizikoz aurreikusten duela aukera espediente zehatzaile bat itundutako amaieraz bukatzeko prozedurari hasteko, eta berori bukatu ahal da hitzartutako zehapen batekin Lehia Defendatzeko Legea urratu duen enpresarekin.

Alabaina, Auzitegiaren Ebazpenean ez da zehazten zerbitzu honek zein prozedurari jarraitu behar dion hitzarmenezko amaierako sistema berri hau praktikan jartzerakoan. Hain zuzen ere, sistema honetan negoziatzeko gaia enpresa arau-hausleri ezarri beharreko zehapena bera da eta horren ordainetan enpresak konpromiso batzuk bere gain hartu behar ditu. Beraz, itundutako amaierako prozeduraren (zehapenik gabekoa) antzera, espedienteren xedeko enpresak agerian onartu behar du Zerbitzuaren aurrean konpromiso batzuk bete egingo dituela, konpromiso horien gutxieneko edukia Ebazpenaren hirugarren oinarri juridikoa delarik. Baina hori gertatzen da funtsezko desberdintasun batekin, alegia, oraingo kasu honetan, hartutako konpromisoetan enpresari eskaintzen zaion ordainak zehapen bat ordaintzetik ez du salbuesten ordaindu beharrekoaren murrizketa dakarrela baizik eta murrizketa hori honenbestekoa edo hainbestekoa izango da honako hauen arabera: prozedura irekitzeko noiz eskatzen den eta proposaturiko konpromisoen edukia.

Prozedura amaitzeko bi moduen artean dagoen alde hau, azken emaitzari dagokionak, eskatzen du, halaber, kasu bakoitzean organo instruktoreak bete behar duen prozedura betiere honako helburuak betetze aldera: 15/2007 Legean zehatzeko prozedura arautzen duten arauetara egokitzea eta defentsaren eskubideak bermatzea.

Auto honen bitartez Auzitegiak ezarri nahi du zehapena hitzarmenezko murrizteko amaiera jardunean ipintzea babesten duen oinarri juridikoa. Gainera zehatzeko prozedura barruan hura lortu ahal izateko jarraitu behar diren izapideak zehaztu nahi ditu.

Lehenago adierazitakoagatik eta bere 2008ko uztailaren 23ko Ebazpenean (Esp R02/2008) ezarritakoa argitu nahian, Auzitegian honako hau adierazten du:



1. Zehapena hitzarmenaz murrizteko tresna zehatzeko prozeduraren baitan sartzen da existituko da Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) 52. artikuluan aurreikusitako tresnarekin batera, hau da, itundutako amaierakoarekin, eta hain zuzen ere haren antzera berorren jardute-arauak aplikatuko dira prozedura amaitzeko modu honetara.

2. Espedientearen xedeko enpresek eskatu ahalko dute zehapena hitzarmenaren bitartez murriztua izan dadila baldin eta zehapenik gabeko itundutako amaiera bat eskatu badute eta Zerbitzuak hura irekitzea ukatu badu edo, bestela, zehatzeko prozeduraren edozein fasetan.

3. Zerbitzuari dagokio lehia alorreko arazoaren arabera edo zehatzeko espedientearen xedeko arau-haustea kontuan hartuta, erabakitzea edo ezestea zehapenik gabeko itundutako amaierarantz zuzendutako jardun haiek hastea. Hala ere, Zerbitzuaren ustez interes publikoak eta batez ere lehiaren defentsarako politikak eskatzen badu zehapen bat ezartzeko, esaterako, LDLa nabarmen edo agerian hautsia izan bada, zehapena hitzarmenaz murrizteko amaitzeko bidea zabalik utzi beharko du.

4. Hartutako konpromisoen ordainetan zehapena hitzarmenezko murrizketako prozeduraren amaieran funtsezkoa da espedientearen xedeko enpresak prozesuan zein unetan eskatzen duen irekitzeko:

- Baldin eta zehapena hitzarmenaz murrizketako tresna lehenago irekitzen bada Gertaerak Zehatzeko Plegua (GZP) baino, orduna enpresak laguntza eta lankidetzat eman beharko du LDEZren ikerlanean enpresaren egintzak eta erantzukizuna GZP batean nahiko egiaztatuta gera daitezen. GZPari buruz egin ditzan alegazioetan enpresak gertaerak eta horietan duen erantzukizuna onartu beharko ditu, eta horrek behin betikoaren isunaren gainean %10eko murrizketa ekarriko du. Halaber enpresak jokabide konpromisoak eskaini ahal ditu, emandako kaltea ordaindu, araudia fede egokiez bermatu eta lehiaren defentsa sustatzeko helburuz. Halakoetan %30eko murrizketa gehigarri bat lortu dezake behin betiko isunarekiko. Azken batean, hitzarturiko murrizketa behin betiko isunaren %40 izan daiteke.
- Baldin eta zehapena hitzarmenaz murrizteko tresna irekitzen bada GZP jakinarazi baino geroago, enpresak ikerketan laguntza eta lankidetzat eskaini beharko ditu eta, bereziki gertaerak onartu beharko ditu baita LDL hautsi duela eta arau-hauste horretan duen erantzukizuna ere. Horrek ekarriko du behin betiko isuna %10ean murriztea. Halaber enpresak jokabide konpromisoak eskaini ahal ditu, emandako kaltea ordaindu, araudia fede egokiez bermatu eta lehiaren defentsa sustatzeko helburuz. Halakoetan %15eko murrizketa gehigarri bat lortu dezake behin betiko isunarekiko. Azken batean, hitzarturiko murrizketa behin betiko isunaren %25 izan daiteke.



5. LDEZk LDEAri zuzendu diezaion txostenean, bideraturiko espedientearekin batera ebazpen proposamena sartuko da. Halaber sartuko da enpresak bere gain hartutako zioen ondorioz zehapena murrizteko egin dadin proposamena (gertaera aringarriak aplikatzearen ondorioz).

6. Ebazteko aldiaren behin espedientea eta Zerbitzuaren Txostena jaso eta gero, azken erabakia hartu baino lehenago Auzitegiak beteko ditu LDLko 51. artikuluan aurreikusitako izapideak.

7. Zehapena ezartzerakoan aintzat hartuko dira zehatzeko espedientearen xedeko arau-haustea nolakoa izan den (arina, larria edo oso larria) baita LDLko 64.1 artikuluan aurreikusitako irizpideak ere.

8. Espedienteraren xedeko enpresak hartutako konpromisoak balioetsi ondoren, Auzitegiak onartuko du bere baitan ebazpen proposamena duen txostenean zehapena murrizteko helburuz proposa dadin ehunekoa. Behin betiko zehapenari dagokionez Auzitegiak erabaki dezan murrizketa LDLko 64.3 artikuluan (inguruabar aringarriak) xedatutakoa oinarri hartuta ezarriko da.